

Erresultatibozko perifrasien diakroniaz zenbait ohar

Dorota Krajewska

UPV/EHU

dorota.krajewska@gmail.com

Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra
2012/10/8

Sarrera

Erresultatiboa

Aurreko ekintzaren ondorio den **egoera bat** adierazten du (Nedjalkov & Jaxontov, 1988).

Euskaraz: partizipioa (*ikusita, ikusirik, ikusia*) + aditz kopulatiboa.

- (1) *Kotxea apurtuta dago.*
- (2) *Nekaturik nago.*
- (3) *Lana eginda daukat.*

Sarrera

Diakronian: erresultatiboak egoera bat adierazi beharrean, ekintza bati erreferentzia egitera pasatzen dira, **perfektu** bilakatuz (Bybee et al., 1994; Lindstedt, 2000; Heine & Kuteva, 2006).

(4) *Film mordoa ikusita gaude / daukagu.*

(5) *Gorriak ikusia naiz.*

(6) *Esan behar nuen guztia esana daukat.*

Helburua: erresultatibozko perifrasiak diakronian aztertzea.

Korpusa: bizkaiera, gipuzkera eta nafarrera XVII. mendetik XX. mendera arte.

Erresultatibo motak

Erresultatibo moten sailkapena (Nedjalkov & Jaxontov, 1988, 9): aurreko ekintzaren zein partaideari egiten zaion erreferentzia erresultatiboan:

Lana idatzita dago.

= erresultatiboa

Kepak lana idatzi du.

= aurreko ekintza deskribatzen duten perpausa

Erresultatibo motak: sailkapena

- 1 **P-erresultatiboa:** jasailea
 - (7) *Ango sua ere, Jaungoikoak egiña da.*
 - (8) *Atea itxirik zegoan.*
 - (9) *Zauriturik eukan gorputz guztia.*
- 2 **S-erresultatiboa:** aditz iragangaitzen argumentu bakarra
 - (10) *Beste amaika toki geiagotik etorria zan jendea.*
- 3 **A-erresultatiboa:** agentea
 - (11) *Makina bat kaskarreko artuta nago berak emanda.*

Erresultatibo motak: emaitzak

mendea	#	A	S	P
XVII	121	%0,8	%2,5	%96,7
XVIII	168	%1,2	%2,4	%96,4
XVIII/XIX	461	%4,6	%5,6	%89,9
XIX/XX	657	%9,1	%14,3	%76,6
XX	928	%12,1	%20,0	%67,9

1. Taula: Erresultatibo moten erabilera.

Esanahia

- ① **erresultatiboa**: aurreko ekintza baten ondorio den egoera bat adierazten du.

(12) *Plaza Berriko denda guztiak itxita zeuden.*

(13) *Prantzes asko ziran etorriak zezenetara.*

- ② **pasiboa**:

(14) *Kainen eskuz illa izan zala.*

(15) *Bi edo iru bidar izan gerade deituak Bergarara Patxi eta ni aitortzeko.*

Esanahia

- 3 **perfektua**: erreferentzia puntuan nolabaiteko garrantzia duen iraganeko ekintza bat adierazten du (Comrie, 1976, 52).
- (16) *Ez negoan seguru zein urtetan jayoa nintzan.*
- (17) *Zazpi alegiñak egiten asia zan.*
- (18) —*Ezagutzen zenuen hiria?*
—*Ez; ez nintzen inoiz izana.*
- 4 **esperientziala**: iraganeko gertaerek subjektuari ezaugarri batzuk ematen dizkiotela adierazten du (Bybee et al., 1994, 62).
- (19) *Ni askotxo ikusia nago.*
- (20) *Komeri ederrak ikusiak gera gazte denboran.*

Esanahia: emaitzak

mendea	#	perf.	esp.	erres.	pas.
XVII	121	%0,0	%0,0	%97,5	%2,5
XVIII	168	%0,6	%0,6	%91,1	%7,7
XVIII/XIX	461	%1,1	%0,4	%92,1	%6,1
XIX/XX	657	%10,0	%4,0	%83,0	%3,0
XX	928	%15,2	%4,2	%79,7	%0,9

2. Taula: Erresultatibozko perfirasiek duten esanahia.

Esanahia: euskalkiak

- 1 perfektua maizenik erabiltzen da nafarreraz, gutxien bizkaieraz;
- 2 esperientziala batez ere bizkaieraz eta gipuzkeraz erabiltzen da;
- 3 gipuzkeraz eta bizkaieraz aditz iragankorrekin egitura iragangaitzak agertzen dira (21), nafarreraz perfektuak **edun* aditzarekin egiten dira gehienetan (22).
(21) *Baño joan dan igandean iru meza bakarrik entzunda nengoala...*
(22) *Norbaitek bizia galdu duenik ez dut inoiz entzuna.*

Aditz motak

- 1 **egoera aldaketa** aditzak – *itxi, apurtu, galdu*;
- 2 aditz **psikologikoak** – *harritu, zoratu, ikaratu*;
- 3 **mugimenduzko** aditzak – *joan, etorri*;
- 4 aditz **kognitiboak** – *ikasi, erabaki, ahaztu, ohartu*;
- 5 **komunikazio** aditzak – *esan, galdetu*;
- 6 **pertzepzio** aditzak – *entzun, ikusi*;
- 7 aditz **estatibo** eta **atelikoak** – *ibili, egon, izan*.

Aditz motak eta esanahia

aditz mota	#	perf.	esp.	erres.
psikologikoak	51	%0,0	%0,0	%100,0
egoera aldaketa	77	%4,5	%0,0	%95,2
mugimendua	109	%11,9	%3,7	%84,4
kognitiboak	36	%36,1	%2,8	%61,1
komunikazio	31	%64,5	%0,0	%22,6
pertzepzio	27	%51,9	%33,3	%14,8
estatiboak	38	%55,3	%39,5	%5,3

3. Taula: Aditz moten eta esanahiaren arteko lotura (XX. mendean).

Ondorioak

Erresultatiboan gertatu diren bilakaerak:

- 1 erresultatibo mota berriak agertu dira eta gero eta sarriago erabiltzen dira;
- 2 esperientzial eta perfektuen maiztasuna igo da;
- 3 aditz moten analisiak erakusten du erresultatiboak gramatikalizazio prozesuan aurreratuta badaude ere, perfektibozko erabilerak oraindik ez direla orokorrak, aditz klase batzuei lotuta baizik.

Erreferentziak

- Bybee, J. L., Perkins, R., & Pagliuca, W. (1994). *The Evolution of Grammar: Tense, Aspect, and Modality in the Languages of the World*. Chicago: The University of Chicago Press.
- Comrie, B. (1976). *Aspect: An Introduction to the Study of Verbal Aspect and Related Problems*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Heine, B. & Kuteva, T. (2006). *The Changing Languages of Europe*. Oxford Linguistics. Oxford: Oxford University Press.
- Lindstedt, J. (2000). The perfect – aspectual, temporal and evidential. In Ö. Dahl (Ed.), *Tense and Aspect in the Languages of Europe* (pp. 365–383). Berlin-New York: Mouton de Gruyter.
- Nedjalkov, V. P. & Jaxontov, S. (1988). The typology of resultative constructions. In V. P. Nedjalkov (Ed.), *Typology of Resultative Constructions* (pp. 3–62). Amsterdam: Benjamins.